# KULTURA PROGRAMAZIOA

## 2025



# BARNEAN ZAITUEN KULTURA

bilbaokultura.eus

**KULTURA JASANGARRIA**
CULTURA SOSTENIBLE

Bilbao

# Bilboko 2025eko kultura programazioa

## Zer da kultura programazioa?

Auzo, herri edo hiri batean
kulturarekin lotuta
egiten diren jarduerak.

Erakunde eta entitateek
toki batean antolatzen dituzten
jardueren programazioa
dokumentu batean jaso daiteke.

Kultura programazioko jarduera guztiak
jasotzen dituen dokumentuari
kultura agenda deitzen zaio.

## Zer aurkituko duzu Kultura Agenda honetan?

Bilbon 2025. urte honetan izango diren
mota guztietako kultura jarduerak.

Jarduera horiek non eta noiz
egiten diren ere jakinaraziko dizugu.

Kasu batzuetan, oraindik ez dakigu
jarduerak non edo noiz egingo diren.
Kasu horietan, hau jarriko dugu:
oraindik ez dakigu tokia
edo oraindik ez dakigu data.

Gainera, dokumentu honetan
jakinaraziko dizugu
zein gune eta jarduera diren irisgarriak
era askotako desgaitasunak
dituzten pertsonentzat.

Horrela errazten dugu

pertsona gehiagok

behar dituzten neurriak

betetzen dituzten jarduueretan

parte hartu ahal izatea.

## Zer da irisgarritasuna?

Tokiek, proiektuek eta jarduerek
bete behar dituzten baldintzak
pertsona guztiek aukera berberekin
parte hartu ahal izateko.

Programazioko tokia edo jarduera
irisgarria denean,
kultura agenda honetan adieraziko dugu,
dagozkion irisgarritasun-sinboloak jarrita.

2025ean, kultura programazio betea dugu,
pertsona guztientzat pentsatutakoa.
Zuretzat pentsatutako programazioa,
hau barne hartzen zaituen kultura delako.

**Zure zain gaude!**

# Toki irisgarrien sinboloak

Honako sinbolo hauek adierazten dituzte dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako irisgarriak diren tokiak eta ekitaldiak.

Hau da sinbolo-taula:

| Sinbolo | Zer esan nahi du |
|---|---|
|  | Toki irisgarria gurpil-aulkian mugitzen diren edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. |
|  | Sarrera irisgarria, eskailerarik gabe. |
|  | Arrapala irisgarria eraikinetan eta hiriko beste toki batzuetan. |
|  | Igogailu irisgarria mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. |
|  | Egokitutako komuna gurpil-aulkian mugitzen diren pertsonentzat. |



Audio-deskribapen sistema.
Testuak irakurtzen ditu eta irudiak azaltzen ditu
ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.



Laguntza produktuak
ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.



Soinua transmititzeko sistema
entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat:
begizta magnetikoa, FM ekipoa...



Zeinu-hizkuntzaren interprete zerbitzua
pertsona gorrentzat
edo antzeko zerbitzua.



Itsuek irakurri ditzaketen
Braille sistemara egokitutako materialak.



Ikur berria, toki edo produktu bat
desgaitasuna duten pertsonentzat
irisgarria dela jakinarazteko.

# Aurkibidea

1. Arte eszenikoak .................................... 9. orrialdera esteka

2. Museoak ............................................ 34. orrialdera esteka

3. Arte bisualak ........................................ 46. orrialdera esteka

4. Sormenezko diseinua eta industriak ..... 54. orrialdera esteka

5. Literatura eta ezagutza......................... 62. orrialdera esteka

6. Ikus-entzunezkoak ............................... 85. orrialdera esteka

7. Musika ............................................... 106. orrialdera esteka

8. Ondarea eta identitatea ........................ 128. orrialdera esteka

9. Aisialdi kulturala.................................. 143. orrialdera esteka

10. Hurbileko kultura................................ 153. orrialdera esteka

# 1. Arte eszenikoak

## Zer dira arte eszenikoak?

Publikoak gozatu dezan

agertoki batean artea eta kultura

antzezteko modu desberdinak dira.

Arte eszenikoen adibide dira:

antzerkia, dantza, musika eta zirkua.



## Arriaga Antzokia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Arriaga plaza 1.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Antzerki, dantza, musika eta opera emanaldien programazio betea du.

Lan egiten duten konpainia guztiek kalitate bikaina dute.

### Web-orria:

https://www.teatroarriaga.eus/

## Campos Elíseos Antzokia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?




**Non?** Bertendona kalea 3bis.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Antzerki, dantza, musika
eta umore ikuskizunak
egiten diren 2 areto ditu.

Estatuko eta nazioarteko konpainia onenen
haur eta gazteentzako emanaldiak ere
eskaintzen ditu.

Antzoki honetako ikuskizunak
egiten diren aretoak Teatro Aretoa
eta Kupula Aretoa deitzen dira.

**Web-orria:**

https://www.teatrocampos.com/

## Euskalduna Kongresu eta Musika Jauregia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Abandoibarra etorbidea 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Antzerki eta musika emanaldiak

eta erakusketak urte osoan zehar.

Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen (OLBE)

Opera Denboraldia ere ospatzen da hemen.

Gainera, Bilbao Orkestra **Filarmonikoaren egoitza** da.

**Filarmonikoa:**
musikaren zalea
esan nahi duen hitza.

**Egoitza:**
edozein motatako erakunde baten
legezko helbidea da.

**Web-orria:**

https://www.euskalduna.eus/

## OLBE Bilbao Opera

## Operaren Lagunen Bilboko Elkartea

**Non?** José María Olabarri kalea.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Hainbat opera mota askotariko publikoarentzat.

2025ean, Euskalduna Jauregiko

Opera Denboraldia eskainiko du.

2025ean gozatu ahal izango diren

opera batzuk dira:

Wagnerren “Tristan und Isolde”, urtarrilaren 18tik 27ra.

Donizettiren “La favorite”, otsailaren 15etik 24ra.

OLBE Txiki programa ere du

haur eta gazteentzat.

Aurten, OLBE Txikik 4 musika-ikuskizun

eskainiko ditu Arriaga Antzokian.

**Web-orria:**

https://www.abao.org/

## BBK Sala

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Kale Nagusia 19-21.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Jarduera programa zabala duen

kultura ezagutzera emateko gunea.

Hainbat musika moten eta instrumentuen

emanaldiak entzun daitezke:

jazza, Portugalgo fadoa, flamenkoa,

rock and rolla, **trikitixa eta txalaparta.**

> **Trikitixa eta txalaparta:**
> euskal musika instrumentuak.

Bai eta antzerkia, poesia, zinema

eta erakusketak ikus daitezke ere.

Gainera, mendia, itsasoa, lurra,

unibertsoa, umorea, magia

eta bizitzari buruz hitz egiteko jarduerak daude.

**Web-orria:**

https://salabbk.bbk.eus/

## Bilbao Eszena

### Baliabide Eszenikoen Zentroa

**Non?** Juan Gardeazabal kalea 3.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Aktoreak prestatzeko
eta antzerki eta dantza lanak
sortzeko eta martxan jartzeko
udal-zentroa da.

Eskaintzen dituen zerbitzuak dira:

- Aretoak lagatzea.
- Hasten ari diren antzerki-
eta dantza-konpainiei laguntza.
- Antzerki ikastaroak
haurrentzat eta gazteentzat.
- Antzerki hastapeneko
Ikastaroak helduentzat.
- Ikastaro espezializatuak aktoreentzat.

## Pabellón 6

### Arte eszenikoen sortzaileen elkartea

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Deustuibarra 42.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Dantzako, antzerkiko eta beste arte eszenikoetako

sortzaileei ezagutzeko, elkartzeko

eta elkarrekin ikuskizunak sortzeko

aukera ematen die.

Pabellón 6ko Antzerki Laborategia

eta Antzerki Konpainia ditu,

ekoizpen propioak egiteko.

Gainera, 2025ean antolatuko dira

Antzerki Arineko 12. Jardunaldiak

apirilaren 11tik maiatzaren 11ra.

**Web-orria:**

https://pabellon6.org/

## La Fundición Bilbao

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Francesc Maciá kalea 1-3.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Kultura-gune berritzaile honetan dantzaren eta antzerkiaren sortzaileek elkar ezagutu, ikasi eta publikoarentzako emanaldiak sortu ditzakete.

### Web-orria:

https://www.lafundicion.org/

## Harrobia

**Bilbao-Otxarkoagako Ezkoipen Eszenikorako**

**Berrikuntza Zentroa**

**Ekoizpen eszenikoa:**

artea sortzea.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Langaran kalea 3.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Arte eszenikoen artistek eta konpainiek

lan egiteko eta obrak sortzeko gunea.

Zentro honek bultzatzen ditu ere

profesionalen prestakuntza,

ikerketa-proiektuak, antzerkiko berrikuntza

eta proiektu artistiko berriak sortzea.

### Web-orria:

https://www.harrobia.org/

## Zirkozaurre

### Zirku espazioa Bilbon

**Non?** Deustuibarra 70B.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Zirkuari lotutako Ikastaroak,

tailerrak eta eskolak.

**Egonaldi artistikoak:**
Artistek artista gehiagorekin
lankidetzan aritzeko
eta laguntza profesionala
jasotzeko tokiak.

**Egonaldi artistikoak** ere hartzen ditu

eta konpainia propioa dauka

zirku-emanaldiak sortzeko eta ekoizteko.

ZKZ Topaketa jaialdia antolatzen du urtero,

abenduan.

**Web-orria:**

https://www.zirkozaurre.com/

## Kultura-mugimendua

## ZAWP-Zorrotzaurre Art Work in Progress

## FICC Terminala

**Non?** Ignacio Zuloaga pintorea 9.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Kultura-mugimendu honek Deustuibarreko eta Zorrotzaurreko auzoetako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten du.

2 gune ditu:

**La Nave Va:** partekatutako lantokia ekintzaileentzat eta elkarteentzat.

**La Terminal:** Kultura eta Sormen Industrien Fabrika.

Aisialdia, kultura eta **gastronomia** proiektuak egiten dira**.**

**Gastronomia:** janaria prestatzen jakiteko eta jaki plater on bat aurkezteko artea.

**Web-orriak:**

https://www.zawp.org/, https://www.laterminal.eus/

## D8 Sorkuntza Faktoria

### Dantzari lotutako espazioa

**Non?** Zorrotzatik Kastrexanarako autobidean 30.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Dantza tailerrak, kontzertuak

eta artisten arteko topaketak.

Dantzako artisten harremana

eta elkartzea bultzatzen du

eta publiko gehiago erakartzen du jardueretara.

**Web-orria:**

https://d8sf.eus/

## Arte eszenikoei lotutako deialdiak

### Deialdiak eta egonaldi artistikoak

### Azkuna Zentroa – Alhóndiga de Bilbao

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Artistei sortzen laguntzeko proiektuak.

Proiektu horiek dira:

- Artista Elkartuak.
- Ikertzaile Elkartuak.
- Komikigintzako Beka.
- Babestu, Sorkuntzan laguntzeko deialdia.

**Web-orria:**

https://www.azkunazentroa.eus/eu/deialdiak/

## Karrikan Plataforma

## Zortzigarren deialdia

**Plataforma:**

zerbait eskatzen duen pertsona-talde batek osatutako erakundea edo mugimendua.

**Non?** Ez du egoitzik.

Web-orrian agertzen diren telefono eta emailen bidez jar daiteke harremanetan.

**Noiz?** 2025eko urtarriletik martxora.

**Zer eskaintzen du?**

Euskadin kalean artea egiteko proiektuak sortzen eta hedatzen laguntzen duen kultura-mugimendua.

Bilboko Udalak plataforma honetan Bilboko Kalealdia jaialdiaren bitartez hartzen du parte.

2025eko urtarrila eta martxoa bitartean argitaratuko da kultura-proiektuen sorkuntzarako Karrikan laguntzen zortzigarren deialdia.

**Web-orria:**

https://karrikan.eu/

## Artistak Egoitzan deialdia

**Non?** Bilbao Eszena.

Juan Gardeazabal kalea 3.

**Noiz?** Martxoaren 11tik apirilaren 11ra.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal Herriko artistei eta erakunde artistikoei

arte eszenikoei buruz ikertzeko

eta sortzeko laguntza.

**Web-orria:**

https://badbilbao.eus/

## Eszenaz

### Zuzeneko arteen denboraldia

### Azkuna Zentroa – Alhóndiga de Bilbao

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**




**Non?** Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Proiektu eta jarduera artistikoak

egiteko, ikertzeko

eta ezagutzera emateko programa.

2024-2025 denboraldian,

bertako eta nazioarteko artisten

lan berriak nabarmentzen dira.

**Web-orria:**

https://www.azkunazentroa.eus/

## BLV-ART Programa

**Non?** Bilbao Zaharra eta San Frantzisko.

**Noiz?** Apirilaren 3tik 13ra.

**Zer eskaintzen du?**

Kultura eta artea adierazteko

modu berrien bidez,

Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoetako

bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/

## ACT

### Eszena Berritzaileen Nazioarteko 22. Jaialdia

**Berritzailea:**

duela gutxi sortu dena.

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Ekainaren 4tik 7ra.

**Zer eskaintzen du?**

Dantzako, zirkuko, antzerkiko

eta beste arte eszenikoen

3 edo 4 piezen saio laburrak.

ACT Jaialdian ere izango dira

nazioarteko artisten tailerrak eta hitzaldiak

eta artisten eta ikusleen arteko topaketa saioak.

**Web-orria:**

https://actfestival.com/

## Lekuz Leku Dantza Jaialdia

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Ekainaren 25etik 28ra.

**Zer eskaintzen du?**

Estatuko eta nazioarteko artisten

dantza pieza laburrez

osatutako programazioa.

Dantza pieza horiek Bilboko

hainbat lekutan dantzatuko dira,

dantzari eta hiriari balioa emateko.

Aurten, jaialdi honen 21. edizioa da.

**Web-orria:**

https://www.lekuzleku.com/

## Bilboko Kalealdia

## Kaleko Antzerkiaren

## Eta Arteen Nazioarteko Jaialdia

**Non?** Jarduera gehienak izango dira

Casilda Iturrizar parkean,

Arriaga plazan

eta UPV/EHUren Bizkaia Aretoa eraikinean.

**Noiz?** Ekainaren 30etik uztailaren 5era.

**Zer eskaintzen du?**

Zirku, dantza, **clown, kalejira**

eta beste arte eszenikoen emanaldiak.

> **Clown:**
>
> zirkuko pailazoa.

Bertako, estatuko eta nazioarteko

konpainia nabarmenek eskaintzen dituzte.

> **Kalejira:**
>
> jai herrikoia, musika
>
> eta dantza
>
> banden desfilearekin.

Jaialdia Bilboko Udalak antolatzen du.

**Web-orria:**

https://bilbokokalealdia.eus/

## Dantzaldia

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Irailetik abendura.

**Zer eskaintzen du?**

Egungo dantzen eta dantza berritzaileen piezak hiriko hainbat lekutan.

Jaialdi honetan, estatuko eta nazioarteko kalitate handiko konpainiek hartzen dute parte.

Aurten, jaialdi honen 26. edizioa da.

**Web-orria:**

https://www.dantzaldia.org/

## Bilbao Haurrentzako Antzerkia

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Ikasturtean zehar.

**Zer eskaintzen du?**

2 ekintza ditu:

**Bilbon Eskolatik Antzerkira**

Hainbat tokitan egiten diren

dantza- eta antzerki-emanaldien kanpainak

ikastetxeetako ikasleentzako.

Kanpaina hau Mitusu elkarteak

eta Bilboko Udalak antolatzen dute.

**Certamen de Teatro Escolar**

Ikastetxeetan sortutako

antzerki-emanaldien lehiaketa.

Proiektua Udalak bultzatzen du.

Aukeratutako lanak eta sarien banaketa

ekainaren 1ean ikusi ahal izango dira,

Arriaga Antzokiko emanaldian.

## Bilbao Antzerki Dantza BAD

**Bilboko Antzerkiaren**

**eta Dantza Garaikidearen Jaialdia**

**Garaikidea:**

Gaur egungoa, garai honetakoa.

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urriaren 16tik 26ra.

**Zer eskaintzen du?**

Dantzako eta antzerkiko erakustaldia.

Bertako, estatuko eta nazioarteko artisten

egungo emanaldi berriak izango dira.

**Web-orria:**

https://badbilbao.eus/

## Bilbao TX

## Bilboko Txotxongiloen Nazioarteko

## 44. Jaialdia

**Non?** La Fundición kultura-gunean,

hiriko plazetan eta auzoetan

eta Otxarkoagako Txotenagunean.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Txotxongiloen ikuskizunak.

Ikuskizun hauek pentsatzen

eta ikasten laguntzen dute.

**Web-orria:**

https://www.bilbaotxfest.org/

# 2. Museoak

## Zer da museoa?

Publikoari irekitako tokia da.

Gizartearen kultura eta historia

ezagutzen laguntzen diguten

objektuak erakusten eta gordetzen dira bertan.



## Bilboko Arte Ederren Museoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Casilda Iturrizar parkean.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Artearen historiako eta euskal artearen artista handien artelan bilduma zabala du.

Museo honen bilduman daude 18. mendetik 21. mendera doazen margolanak, eskulturak, marrazkiak, **grabatuak,** argazkiak, kartelak, diseinuko eta arkitekturako objektuak.

**Grabatua:** irudi bat oinarri batetik paper batera pasatzean sortzen den artelana, oinarriaren eta paperaren gainean presioa eginez.

**Web-orria:**

https://www.bilbaomuseoa.eus/

## Guggenheim Bilbao Museoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Abandoibarra 2,

Salbeko zubiaren ondoan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Arkitektura garaikidearen

museo garrantzitsuenetako bat da.

Barruan lan oso ezagunak daude.

### 2025erako programazioa

- Artista hauen erakusketak:
  Tarsila de Amaral, Barbara Kruger, Marck Leckey
  eta Maria Helena Vieria da Silva, besteak beste.
- Film eta bideo aretoaren programazio hasiera.
  In situ proiektua, museo honetarako
  espresuki egiten diren artelanak dira.

### Web-orria:

https://www.guggenheim-bilbao.eus/

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?




**Non?** Alde Zaharrean.

Orain museoa obrengatik itxita dago.

Museoko erakusketak hiriko

beste leku batzuetan ikus daitezke.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Museo honek euskal gizartearen

historia eta ohiturak eta tradizioak

aztertzen ditu.

### 2025erako programazioa

“Kameratik orratzera” erakusketa.

Hainbat tokitan goza daiteke erakusketa hau.

Lehenengoa, Ondare Aretoan izango da.

### Web-orria:

https://www.euskalmuseoa.eus/

## Bilboko Berreginen Museoa

**Berregina:**

jatorrizko

artelan baten kopia.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** San Frantzisko auzoan,

Mariaren Bihotzaren eliza zaharra

zegoen tokian.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Artelan garrantzitsuen

eta ezagunen berreginak.

### 2025erako programazioa

“AMA” erakusketa.

Artearen bidezko

amatasunari buruzko elkarrizketa da.

### Web-orria:

https://www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/

## Mariaren Bihotza plazako Aztarnategia

**Aztarnategia:**

objektu eta eraikin

oso zaharren aztarnak

ikus daitezkeen tokia.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Bilbo Zaharrean,

Mariaren Bihotza plazaren azpian.

Bilbao Bizkaia Museoen

egoitzatik sar daiteke,

Mirasol Kondearen kalea 2.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

15. mendeko San Frantzisko komentuaren

aztarnak bisita daitezke.

### Web-orria:

https://www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/eu/ikusi/aztarnategia/

## Itsasmuseum Bilbao

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Garai bateko Euskalduna ontziolaren eta Olabeagako **dikeen** gainean.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Dikea:**
urari eusteko
eta beste leku batzuetara
joan ez dadila kontrolatzeko
harresia edo eraikina.

### Zer eskaintzen du?

Bilboko itsasadarretik
Bizkaiko Golkora doan
itsas kultura babestea
eta ezagutzera ematea du helburu.

Tokiko historiari buruzko
erakusketa dago museo barruan
eta kanpoan zenbait itsasontzi daude.
Gainera, halako jarduerak egiten dira:
haurrentzako tailerrak, bisita gidatuak
eta **“escape room”** edo ihes-gela**.**

**Escape room:**
areto baten barruan
egin ohi den jolasa.
Proba batzuk gainditu
behar dira aretotik
irteteko eta irabazteko.

**Web-orria:**
https://itsasmuseum.eus/

**Eleiz:**

Sakratua, erlijiozkoa.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Atxuriko auzoan,

domingotarren Enkarnazio komentu zaharrean.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Ikusgai ditu pintura eta eskultura

zaharrak eta modernoak,

objektu erlijiosoak

eta metalarekin egindako artelanak.

**Web-orria:**

https://eleizmuseoa.com/

## Pasio-irudien Museoa

**Pasio-irudia:**
prozesioetan
erlijiozko irudiak
eramateko orga
edo plataforma.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Iturribide kalea 3.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Museoan ikusgai daude
Aste Santuko prozesioetan
Kristoren Pasioaren Bide Gurutzeko pauso batzuk.

### Web-orria:

http://www.museodepasosbilbao.com/

## Bizkaiko Arkeologia Museoa

**Arkeologia:**

antzinatik

mantentzen diren

objektuen eta

monumentuen aztarnak.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Zazpi Kaleetan,

Mallonako eskaileren ondoan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Bizkaiko historia erakusten du

historiaurretik biztanleek

utzi dituzten objektu eta tokien bidez.

Baita ere ikerketa arkeologikoak sustatzen ditu

antzinako materialen aztarnetatik abiatuta

eta antzinako material horiek

gordetzen, mantentzen eta zaharberritzen direla

ziurtatzen du.

### Web-orria:

Web-orrirako esteka

## Athletic Club Museoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** San Mames futbol-zelaian,

Basurtu auzoan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Athleticen historia ezagutzeko

aukera ematen du.

### Web-orria:

https://sanmames.athletic-club.eus/museo/

## Zezen Museoa

**Non?** Vista Alegre zezen-plazan,

Ametzola auzoan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Zezenketarekin lotutako jardueren

eta ekitaldien historia kontatzen du

argibide-testuen bidez.

1995ean inauguratu zen.

**Web-orria:**

http://www.bilbao.bmftoros.com/plaza/bilbao/

# 3. Arte bisualak

## Zer dira arte bisualak?

Batez ere ikusmenaren bidez hautematen diren artelanak.

Arte bisual nagusietako batzuk dira: pintura, arkitektura, argazkilaritza eta **arte digitala.**

**Arte digitala:**
artelanak sortzeko teknologia erabiltzen duen adierazpen artistikoa. Adibidez, ordenagailuz edo kamera digitalez egindako artea.



## Bilboarte Fundazioa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Urazurrutia kalea 32.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Artistek arteari buruz ikasi

eta artea sor dezakete bertan.

Eskaintzen ditu grabatu, eskultura,

filmazio, bideo grabaketa, argazkigintza,

edizio eta inprimatze tailerrak

eta material digitalak egiteko laborategia.

Proiekzio-gela bat, **ekoizpen estudioa**

eta hainbat areto eta espazio ere baditu.

**Ekoizpen estudioa:**
bideo profesionalak
grabatu eta
prestatzeko
prest dagoen aretoa.

Abandoibarran, Uribitarte 40 izeneko erakusketa-aretoa du.

**Web-orria:**

https://bilbaoarte.org/

Aurkibidera joan

## Rekalde Aretoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Rekalde zumarkalea 30.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Aldi baterako erakusketak.

Denbora batez ikus daitezke

munduko hainbat tokitako

egungo sorkuntza artistikoak.

Areto hau 1991n sortu zen.

**Web-orria:**

https://www.salarekalde.bizkaia.net/

## Azkuna Zentroa – Alhóndiga de Bilbao

## Bilboko Gizarte eta Kultura Zentroa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Era askotako erakusketen programazioa.

2025ean, sorkuntzari laguntzeko

Babestu programako lanak

gozatu ahal izango dira,

beste proiektu batzuen artean.

**Web-orria:**

https://www.azkunazentroa.eus/

## Basquedok

### Jaialdiaren 6. edizioa

### Euskadiko Irudi Garaikidearen Nazioarteko Jaialdia

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Azkuna Zentroa.

**Noiz?** Urriaren 23tik 26ra.

**Zer eskaintzen du?**

Jaialdi honek egungo **argazkigintza dokumentala** ezagutzera ematen du.

Baita hausnarketarako eta eztabaidarako gonbita egiten du ere.

Bertan antolatzen dira hitzaldiak, mahai-inguruak, erakusketak, eskolak profesionalekin, tailerrak, proiekzioak, dokumentazio aukeraketa eta sari-banaketak.

**Argazkigintza dokumentala:** argazkigintza mota honekin irudi baten bidez errealitatea irudikatzen da.

**Web-orria:**

https://basquedokfestival.com/

## Bideotikan

## Arte Digitalaren Nazioarteko Jaialdia

**Non?** Kalean, hainbat tokitan.

**Noiz?** Azaroaren 3tik 23ra.

**Zer eskaintzen du?**

Jaialdi honek hiria

arte birtualeko galeria bihurtzen du

kalean paseatzen ari den publikoarentzako.

Teknologia-artearen lanak proiektatzen dituzte

hiriko leku esanguratsuetan

jartzen diren pantaila handietan.

Ikus-entzunezko tailerrak eta emanaldiak

ere eskaintzen dituzte.

**Web-orria:**

https://bideotikan.art/es/

## MEM Jaialdia

## Arte Esperimentalaren Nazioarteko Jaialdia

**Esperimentala:**
ikus-entzunezko
proiektuak sortzeko
modu berriak,
ohikoak ez diren
beste metodo batzuekin.

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Ikus-entzunezko artearen
egungo proiektu berriak.

Euskadiko eta nazioarteko artistek
sortutako proiektuak dira:
**instalazioak,** soinu-artea,
kontzertuak, dantza,
zinema eta bideoak.

**Instalazioa:**
toki bat
denboraldi batez aldatzea,
ikusteko eta entzuteko
izan daitekeen
artelan batekin.

Jaialdi hau duela 20 urte baino gehiago egiten da.
Sortzaileen eta publikoaren arteko
topaketa eta harremana ahalbidetzen du.

**Web-orria:**

http://www.musicaexmachina.com/

## FIG Bilbao

## Paper Artearen eta Grabatuaren

## Nazioarteko 14. Jaialdia

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Euskalduna Jauregian.

**Noiz?** Azaroko bigarren hamabostaldian.

**Zer eskaintzen du?**

Paperean egindako grabatu

eta marrazki onenen aukeraketa.

Jaialdi honetan parte hartzen dute

arte-galeriek, artista profesionalek

museoek eta kultura-erakundeek.

Jaialdiaren programazioan

hainbat jarduera egiten dira:

tailerrak, hitzaldiak

eta zuzeneko erakustaldiak.

**Web-orria:**

https://www.figbilbao.com/

Aurkibidera joan

# 4. Diseinua eta sormenezko industriak

## Zera da diseinua?

Objektuak eta lekuak hobetzeko

eta ideiak artearen bidez adierazteko

elementuak sortzeko prozesua.

Diseinuak artistei laguntzen die

lanei forma ematen,

lan horiek irisgarriago egiten

eta publikoarekin komunikatzen.



## Zer dira sormenezko industriak?

Kultura- eta sormen-produktuak

eta -zerbitzuak sortzea, ezagutzera ematea

eta saltzea helburu duten

enpresa, erakunde eta jarduerak.

Sormenezko industriei esker

kulturarekin eta sorkuntzarekin

lotutako lan gehiago

eta kultura eta arte-produktu

eta zerbitzu gehiago daude.

## Open Gunea

## Kultura-zentroa

**Non?** Zorrotzaurren,

Artiach fabrika zaharrean.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Kultura-zentro honek

artistei laguntzen die

egungo kulturarekin eta teknologiarekin

lotutako sorkuntzak egin ditzaten.

Beste proiektu batzuk ere baditu:

sorkuntzan laguntzeko egonaldiak

eta bigarren eskuko gauzak

saltzen diren asteroko azoka.

Azoka horrek Vintage Bilbao du izena.

**Web-orria:**

https://espacioopen.com/

## DENDAZ

### This is Basque Design

> **This is Basque Design:**
> ingelesezko hitz hauek
> esan nahi dute:
> Hau euskal diseinua da.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Azkuna Zentroan.
Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Denda honetan, diseinatzaileek
eskuz egindako produktuak sortzen dituzte.
Bertako baliabideekin egindako
eta ingurunea eta ingurumena
errespetatzen dituzten
kalitatezko produktuak dira.

**Web-orria:**

https://dendaz.azkunazentroa.eus/

## If Design Student Award 2025

**If Design Student Award:** ingelesezko hitz hauek esan nahi dute: 2025eko diseinuaren sariak ikasleentzat.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Guggenheim Bilbao Museoan.

**Noiz?** Ekainaren 19an eta 20an.

### Zer eskaintzen du?

Talentu handiko gazteentzako munduan ospetsuenak diren nazioarteko diseinu sariak banatzeko ekitaldia da.

Otsailaren 5a da 2025eko If Design Award sarietan izena emateko azken eguna.

**Web-orria:**

https://ifdesign.com/es/if-design-student-award

## Bilbao Bizkaia Design Week

**Design Week:**

ingelesezko hitz hauek esan nahi dute: Bilbao-Bizkaiko diseinuaren astea.

**Non?** Ensanche eraikinean eta beste toki batzuetan.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Hitzaldiak, erakusketak, inprobisazioa, desfileak, tailerrak eta talde-lanerako topaketak diseinuan interesa dutenentzat eta diseinuko profesionalentzat.

**Web-orria:**

https://www.bilbaobizkaiadesignweek.eus/

**Selected Europe**

## Diseinuaren eta Sormenaren Nazioarteko Jaialdia

> **Selected Europe:**
> ingelesezko hitz hauek
> esan nahi dute:
> Aukeratutako Europa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Bilboko Sozietate Filarmonika.

**Noiz?** Azaroaren 27an eta 28an.

### Zer eskaintzen du?

Gai hauekin lotutako programa:

berrikuntza, ingurumena zaintzea,

bertako baliabideak aprobetxatzearen garrantzia,

eta diseinuak gizartean duen eragina.

Jaialdi honetara joango dira

estatuko eta nazioarteko sortzaileak.

Jaialdi hau eredua da

sorkuntza, diseinu eta ilustrazioko

ikasleentzat eta profesionalentzat.

**Web-orria:**

[https://selectedinspiration.com](https://selectedinspiration.com)

## Bilbao Maker Faire

## Sormenezko Teknologien Nazioarteko Jaialdia

**Non?** Open Gunea,

Zorrotzaurren,

Artiach fabrika zaharrean.

**Noiz?** Azaroan eta abenduan.

**Zer eskaintzen du?**

Teknologia modu sortzailean

erabiltzearekin zerikusia duten

estatuko eta nazioarteko

mota guztietako proiektuen erakustaldiak.

Jaialdia 2013. urtetik ospatzen da Bilbon.

Sarrera librea eta doakoa da.

**Web-orria:**

https://bilbao.makerfaire.com/

## BIG C

### Bilbao International Games Conference

> **International Games Conference:**
> Ingelesezko hitz hauek esan nahi dute:
> Bilboko jokoen nazioarteko hitzaldia.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Euskalduna Jauregian.

**Noiz?** Abenduan.

**Zer eskaintzen du?**

Bideo-jokoekin zerikusia duten hitzaldiak,

Tailerrak eta arrakasta duten proiektuak.

Jaialdi honetan mundu osoko

bideo-jokoen profesionalek

parte hartzen dute.

**Web-orria:**

https://www.bilbaogamesconference.com/

# 5. Literatura eta ezagutza

## Zer da literatura?

Ahozko edo idatzizko hitzen bidez
artea adierazteko modua da.

Literatura sortzen duen pertsonak
esandako edo idatzitako hitzen bidez
ideiak, sentimenduak, bizipenak
edo historiak adierazten ditu.

## Zer da el ezagutza?

Gure esperientziaren bidez,
egiten ditugun jardueren bidez
edo liburuetan irakurriz
ikasten ditugun gauzak.



## Bilboko liburutegiak eta mediatekak

### Zer da liburutegi bat?

Liburu asko dagoen tokia.
Liburu horiek antolatuta
eta irakurtzeko prest daude.

Liburutegian liburuak
ez dira saltzen.
Denbora batez irakurtzeko
mailegatzen dira
eta gero itzuli egiten dira.

### Zer da mediateka?

Ikus-entzunezko edukiarekin zerikusia duten
artxiboak eta dokumentuak
gordetzen eta kontserbatzen den tokia.
Adibidez,
filmak, musika eta hizkuntza ikastaroak.

Mediatekako materialak
egun batzuetan zehar mailegatu daitezke,
liburutegian bezala.

**Non?**

Bilbon, 17 udal liburutegi daude.

**Zer irisgarritasun-neurri dituzte?**

Bidebarrieta liburutegi nagusia.




Deustu eta Begoña barrutietako liburutegiak.

Basurto, Castaños, Ibaialde, Irala, Otxarkoaga,

Errekalde, San Frantzisko, Zabala

eta Zurbarranbarri auzoetako liburutegiak.



San Ignazio eta Zorrotza auzoetako liburutegiak.



San Adrian auzoko liburutegia.




Zazpikaleak haur liburutegia.



Buiako zerbitzu-gunea.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen dute?**

500.000 elementutik gorako bilduma bat.

Bilduma horretan daude: liburuak,

komikiak, prentsa eta aldizkariak,

filmak DVD formatuan, musika CDak,

bideo-jokoak, mahai-jokoak

eta beste elementu batzuk.

Elementuak liburutegian bertan

kontsulta daitezke,

edo kanpora atera egun batzuetan zehar.

Gainera, liburutegietan programa betea dago

adin guztietako pertsonentzako

400 jarduera baino gehiagorekin.

Helduentzako jarduerak:

irakurketa tailerrak, hitzaldiak,

erakusketak eta bisita gidatuak

Haurrentzako eta gazteentzako jarduerak:

ipuin-kontalariak, magia, txotxongiloak,

idazleekin topaketak eta tailerrak.

**Web-orriak:**

https://www.bilbao.eus/

https://blogbibliotekak.bilbao.eus/

## Bizkaiko Foru Liburutegia

**Non?** Zabalgunean.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bizkaiko lurraldeari buruz

aritzen diren materialak

zaintzeko eta ezagutzera emateko tokia.

Ia 3.000 elementuko bilduma du.

Elementu horiek dira

liburuak, esku-orriak, orri solteak,

**aldizkako argitalpenak,**

eskuz egindako idazlanak

eta 15. mendean sortutako materialak.

**Aldizkako argitalpenak:**

aldian-aldian zenbaki

berri bat eskaintzen duten

egunkari edo aldizkariak.

Adibidez, egunero,

astean behin

edo hilean behin.

**Web-orria:**

Web-orrirako esteka

# Mediateka BBK

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Azkuna Zentroan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

## Zer eskaintzen du?

Sortzeko, ikasteko

eta esperimentatzeko tokia.

Bertako jardueren programa

zentroko kultura-jarduerarekin lotuta dago.

Adin eta kolektibo desberdinetako pertsonek

parte har dezaten pentsatuta daude.

**Web-orria:**

https://www.azkunazentroa.eus/eu/mediateka-bbk/

## Lehiaketak

### Literatura-lehiaketak

El Ayuntamiento de Bilbao convoca estos concursos:

- **Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa.**
  **Noiz?** Urtarrilaren 15etik martxoaren 30era.
- **Miguel de Unamuno Saiakera Saria.**
  **Noiz?** Otsailaren 15etik apirilaren 30era.
- **Blas de Otero-Ángela Figuera Poesia Saria.**
  **Noiz?** Martxoaren 15etik maiatzaren 30era.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/bidebarrieta-kulturgunea/

### Lehiaketetako argitalpen irabazleak

2025ean argitaratuko dira lan irabazleak:

- **2023 eta 2024ko Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa,**
  euskaraz eta gaztelaniaz.
- **2024ko Miguel de Unamuno Saiakera Saria,**
  euskaraz eta gaztelaniaz.
- **2024ko Blas de Otero-Ángela Figuera Poesia Saria,**
  euskaraz eta gaztelaniaz.

## Ipuin lehiaketa Rafael Mikoleta

Euskaraz irakurtzea eta idaztea sustatzeko lehiaketa.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da.

**Noiz?** Ipuinak emateko azkeneko eguna, urtarrilaren azkeneko barikua.

**Web-orria:**

Web-orrirako esteka

## Bizkaidatz Literatura lehiaketa 17. edizioa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen lehiaketa sormena bultzatzeko.

**Noiz?** Oraindik ez dakigu data.

**Web-orria:**

Web-orrirako esteka

## Bizkaidatz Txikia literatura lehiaketa 11. edizioa

Bizkaiko Foru Aldundiak

antolatzen duen lehiaketa

literatura-sorkuntza bultzatzeko

ikastetxeetako ikasleen artean.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako

ikasleek parte har dezakete,

gehienez 16 urte arte.

**Noiz?** Lanak emateko azken eguna,

otsailaren 13a.

**Web-orria:**

Web-orrirako esteka

## Literaturarekin eta liburuekin lotutako jaialdiak eta programak

### Bidebarrieta Kulturgunea

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**




**Non?** Bidebarrietako liburutegiaren barruan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

- Topaketak, eztabaidak, zikloak, jardunaldiak, errezitaldiak eta emanaldiak.
- Elkarrizketak idazle ospetsuekin eta liburuen aurkezpenak.
- Aitorpen-egunak idazleei.
- Topaketa zientifikoak eta matematikari buruzko jardunaldiak.
- Kulturari eta pentsamenduari buruzko eta emakumeek zientziari egindako ekarpenari buruzko zikloak.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/es/bidebarrieta-kulturgunea/

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Azkuna Zentroan.

**Noiz?** Otsailaren 25etik martxoaren 1era.

### Zer eskaintzen du?

Hitzarekin, irakurketarekin,

literaturarekin eta egungo artearekin

lotutako jarduerak egiteko tokia.

Bertako eta nazioarteko sortzaileek

parte hartzen dute urtero jaialdi honetan.

### Web-orria:

https://www.azkunazentroa.eus/

## Bilbao Poesia

### Poesiaren 26. astea

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**




**Non?** Bidebarrieta liburutegian.

**Noiz?** Martxoaren 15etik 23ra.

**Zer eskaintzen du?**

Nazioarteko poeta ezagunen

irakurketak eta errezitaldiak.

Bestelako jarduerak ere egongo dira:

topaketak idazleekin, hitzaldiak,

kontzertuak eta liburu-aurkezpenak.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/bidebarrieta-kulturgunea/

## Liburu-azokak

**Zer eskaintzen du?**

Euskadiko Liburu Ganbarak

liburu azoka hauek antolatzen ditu

Bilboko Udalarekin lankidetzan:

- **Liburuaren Nazioarteko Eguna**

  **Non?** Berastegi kalean.

  **Noiz?** Apirilaren 23an.

- **Liburu Berrien Azoka**

  **Non?** Areatzan.

  **Noiz?** Maiatzaren 30etik ekainaren 9ra.

- **Liburu Zaharren eta Aukerako Liburuen Azoka**

  **Non?** Areatzan.

  **Noiz?** Urriaren 17tik azaroaren 2ra.

**Web-orria:**

https://liburuganbara.eus/

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Arriaga Antzokian.

**Noiz?** Ekainean.

**Zer eskaintzen du?**

Idazle ezagun baten euskarazko lanaren

etengabeko irakurketa egiten da.

Hautatutako idazleari buruzko

hitzaldiak ere egiten dira

Euskaltzaindiaren egoitzan.

**Web-orria:**

https://bilbozaharra.eus/forum-eta-irakurraldia/

## JA! Bilbao

## Umorezko Literaturaren

## eta Artearen Nazioarteko 16. Jaialdia

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Askotariko programa duen

umorean espezializatutako jaialdia.

Jarduera nagusien artean daude:

hainbat gaiei buruzko elkarrizketak,

egileei elkarrizketak, erakusketak,

lehiaketak eta emanaldiak.

Europan umorean espezializatuko

jaialdi bakarra da.

**Web-orria:**

https://jafestival.com/eu/

## Bilboko Arte Liburu Azokaren (BALA)

## 10. edizioa

**Bilbao Art Book Fair**

**Bilbao Art Book Fair:**

ingelesezko hitz hauek esan nahi dute:

Bilboko Arte Liburu Azoka.

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Abenduaren 11tik 14ra.

**Zer eskaintzen du?**

Artistek paperezko edizioaz gain,

liburuak editatzeko modu berriak

ikertzen eta erakusten dituzten azoka.

Aurten, BALAk 10 urte betetzen ditu

eta jarduerez eta pertsona gonbidatu bereziz

betetako azoka ospatzen du.

**Web-orria:**

https://www.banizunizuke.com/bala/

## Bizilabe

**Non?** Zorrotzako eta Otxarkoagako Gazteguneetan, Esperantzan, Basurtuko Markegunean, Deustuko Udaltegian.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Zientziarekin eta teknologiarekin lotutako aisialdi jarduerak, 10 eta 16 urte bitarteko haurrentzat eta gazteentzat.

Jarduera horietako batzuk dira: esperimentuak, zientziako eta teknologiako enpresetara bisitak, ikertzaileekin tailerrak eta topaketak.

**Web-orria:**

https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/bizilabe-bilbo

## “Emakumeak zientzialari eta teknologo” erakusketa

**Non?** Zabalgunean.

**Noiz?** Otsailaren 4tik 11ra.

**Zer eskaintzen du?**

Erakusketa honek izango ditu

zientziaren eta teknologiaren

munduko 12 emakumeren ilustrazioak.

Erakusketa hau Elhuyarrek

eta Bilboko Udalak antolatzen dute

Emakume eta neska zientzialarien

Nazioarteko Eguna ospatzeko.

**Web-orria:**

https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/otsailak-11

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Bizkaia Aretoan.

**Noiz?** Martxoaren 14an.

## Zer eskaintzen du?

Matematikari buruzko hitzaldi laburrak.

## Web-orria:

https://naukas.com/

## Elhuyar Zientzia Azoka

**Non?** Areatzako kaian.

**Noiz?** Maiatzaren 21etik 24ra.

**Zer eskaintzen du?**

Euskadiko ikastetxeetako

DBHko eta Batxilergoko

ikasleek eta irakasleek

euskaraz egindako zientzia-proiektuak

ezagutzera ematen ditu.

Proiektu honi esker ikerketa zientifikoa

eta garapen teknologikoa

hurbiletik ikusi daitezke.

Azokan lanak ebaluatuko dira.

Sariak maiatzaren 24an banatuko dira.

**Web-orria:**

https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu

## Urbanbatfest

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Kultura jaialdia da.

Arkitekturaren, **hirigintzaren**

eta gizarte-berrikuntzaren bitartez

aztertzen ditu hiriko aldaketak

eta gizartean bizitzeko modu berriak.

> **Hirigintza:**
> udalerriko eraikinak
> eta espazioak arau batzuei
> jarraituz antolatzeko modua,
> herritarren bizitza
> hobetzeko.

Formala eta informala,

teoria eta praktika,

zaharra eta berria

elkartzen diren guneak bilatzen ditu.

**Web-orria:**

https://urbanbat.org/

## Naukas Bilbao

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Euskalduna Jauregian.

**Noiz?** Azaroaren 19tik 21era.

### Zer eskaintzen du?

Ezagutza publikoari oro har
irisgarriago egiteko
jardueren programa.

Naukas duela 15 urtetik ospatzen da
eta 3 atal ditu:

- Bere proiektuak azaltzen dituzten ikertzaileak.
- Zientziarekin lotutako historiak azaltzen dituzten zientzialariak.
- Haurrei zuzendutako tailerrak, hitzaldiak eta jarduerak.

### Web-orria:

https://naukas.com/

# 6. Ikus-entzunezkoak

## Zer esan nahi du ikus-entzunezkoak?

Informazioa, artea

eta kultura transmititzeko metodoa,

ikusmen eta entzumen bidez.

Zinema eta telebista

ikus-entzunezkoen adibideak dira.



## Bilbao Bizkaia Film Commission

**Non?** Plaza Biribila 1, 1. solairuan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bilbora eta Bizkaira zinemako,

telebistako eta publizitateko filmaketak

ekartzeko proiektua.

**Web-orria:**

https://www.bifilmcommission.com/eu/

## Fas zinekluba

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Indautxu aretoan.

**Noiz?** Urtarriletik ekainera

eta urritik abendura,

martitzenetan 19:45ean.

### Zer eskaintzen du?

Filmak jatorrizko bertsioan

eta gaztelaniazko azpitituluekin

eta klasiko handiak ematen dituen aretoa.

Filmen ostean,

ikusitakoari buruz hitz egiteko

solasaldi bat dago.

FASek dokumentazio-liburutegia

eta zinema-aholkularitzako zerbitzua ere ditu

Olabeagako udaltegian.

**Web-orria:**

https://www.cineclubfas.com/

Aurkibidera joan

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Azkuna Zentroan.

Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

## Zer eskaintzen du?

Zinema klasikoari eta egungo zinemari buruzko programazioa.

## Web-orria:

https://www.azkunazentroa.eus/

## Ongi Etorri Zinema

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

 

**Non?** Hika Ateneon.

**Noiz?** Oraindik ez dakigu data.

### Zer eskaintzen du?

Gure gizartea eraldatzeko

eta tolerantzia sustatzeko

zinema zikloa eta topaketarako

eta hausnarketarako tokia.

Gai hauek jorratzen dira:

immigrazioa, asiloa, aterpea,

mugak eta hainbat kultura.

**Web-orria:**

https://hikaateneo.eus/

## Laboral Kutxa Bilbao

**Surf Film Festival**

> **Surf Film Festival:**
> ingelesezko hitz hauek
> esan nahi dute:
> Surfaren zinemaldia.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Itsasmuseumen.

**Noiz?** Otsailaren 28tik martxoaren 3ra.

### Zer eskaintzen du?

Surfarekin lotutako

nazioarteko zinema zikloa.

Film laburrak, dokumentalak

eta filmak ikus daitezke.

> **Jasangarria:**
> denboran zehar mantendu
> daitekeena toki bateko
> baliabideak gastatu gabe
> eta ingurunea kaltetu gabe.

Gainera, eskaintzen ditu

surf **jasangarriari** buruzko jardunaldiak,

kontzertuak, tailerrak

eta surf-oholen argazkien erakusketak

eta arte-erakusketak.

**Web-orria:**

https://bilbaosurffilmfestival.eus/

## Silver Film Festival

## Zinema eta Pentsamenduaren Nazioarteko Jaialdia

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Campos Elíseos Antzokian eta beste toki batzuetan.

**Noiz?** Martxoan.

**Zer eskaintzen du?**

55 urtetik gorako pertsonekin

lotutako zinemaldia.

Sakon jorratzen ditu gai hauek bezalakoak:

adinagatiko diskriminazioa

edo orain pertsonak lehenago

baino denbora gehiago bizi direla.

Zinema-emanaldiez gain,

zinemaldiak jarduera gehiago ere baditu.

**Web-orria:**

https://www.silverfilmfestival.eus/

## Fant 31

## Bilboko Zinemaldi Fantastikoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Golem Alhóndiga Zineman.

**Noiz?** Maiatzaren 2tik 10era.

### Zer eskaintzen du?

Zinemaldi honetan

fantasiazko zinemaren filmak

ematen dira.

Aurten, FANTek 31 urte beteko ditu.

Fantasiazko maisuei omenaldiak

haurrentzako saioak,

film laburren saioak egiten dira

eta dokumentalak ere ematen dira.

Gainera, zenbait sari ematen dira.

**Web-orria:**

https://www.fantbilbao.eus/

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Golem Alhóndiga Zineman.

**Noiz?** Maiatzean.

## Zer eskaintzen du?

Hainbat herrialdeetako emakumeek

zuzendutako fikziozko filmak

eta dokumentalak.

Emakumeek egindako zinema erakusketa hau

2008an sortu zuen

Amal Ramsis egiptoar zinemagileak.

Munduko hainbat lekutan ematen da.

**Web-orria:**

https://www.kcd-ongd.org/

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Bilborocken.

**Noiz?** Ekainean.

## Zer eskaintzen du?

Astebetez, zinema, musika

eta beste jarduerak:

nazioarteko adituekin eskolak,

erakusketak, kontzertuak

eta DJs & **VJs** saioak.

**VJs:**

bideoa musikarekin

nahasten duten pertsonak.

**Web-orria:**

https://caostica.com/

## Zinegoak 2025

## Bilboko LGTBIQ+ Zinemaren eta Arte Eszenikoen

## Nazioarteko 22. Jaialdia

**Non?** Hiri osoan zehar.

**Noiz?** Ekainaren 23tik 30era.

**Zer eskaintzen du?**

Sexu-aniztasunaren

eta **genero-identitatearen**

inguruko filmak, antzezlanak,

hausnarketarako guneak,

eztabaidak, topaketak eta hitzaldiak.

**Genero-identitatea:**

Pertsona bakoitzak

bere burua

antzematen duen generoa.

**Web-orria:**

https://zinegoak.com/

## Gizazinea

## 15. Edizioa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Bilborocken.

**Noiz?** Urrian.

### Zer eskaintzen du?

Gizartearen eta gizakiaren hainbat errealitate publikoari hurbiltzeko programazioa, zinemaren, antzerkiaren, musikaren, argazkigintzaren, pinturaren eta dantzaren bidez.

Gizazinearen helburua da balioetan oinarritutako hezkuntza eta giza eskubideak artearekin eta ikus-entzunezko proiekzioekin lotzea.

**Web-orria:**

https://caostica.com/gizazinea/

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Golem Alhóndiga Zineman.

**Noiz?** Urriaren 16tik 23ra.

**Zer eskaintzen du?**

Gai hauei buruz eztabaida sortzen duten filmak:

garapen jasangarria, genero-berdintasuna,

kulturartekotasuna, giza eskubideak,

migrazioa, sexu-aniztasuna

eta desgaitasuna.

Jaialdiaren helburua da

gizarte inklusiboagoak, bidezkoagoak

eta ingurunearekin konpromisoa

hartzen duten gizarteak sortzea.

**Web-orria:**

https://www.kcd-ongd.org/cine-invisible

**Bideodromo**

**Zinema Esperimentalaren**

**Nazioarteko Jaialdia**

**Esperimentala:**

ohikoak ez diren metodoekin zinema egiteko eta bideoak grabatzeko modu berriak.

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Iraupen eta grabazio-formatu guztietako lan esperimentalen proiekzioa.

Fikziozko, ez-fikziozko, saiakerazko, dokumental, artezko edo animaziozko lanak izan daitezke.

**Web-orria:**

https://www.bideodromo.com/

## Zinemakumeak Gara!

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Munduko emakume zinema-zuzendarien lanak

ezagutzera ematen dituen

zinema erakusketa.

Urtean behin, zinemaldi honek

Simone de Beauvoir saria ematen die

zineman nabarmen diren emakumeei.

Bihargi EITB Saria ere ematen die

euskal zineman lanean

hasten diren emakumeei.

**Web-orria:**

https://zinemakumeak.com/

## Thinking Football Film Festival

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

 

**Non?** BBK Salan.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Filmak eta dokumentalak

futbolak gaur egungo gizartean duen

eraginari buruz.

Athletic Club Fundazioak

antolatzen du.

**Web-orria:**

https://thinkingfootballfilmfestival.com/

## Bilbao Seriesland Jaialdia

## Euskal Herriko Serie

## Esta Eduki Digitalen Nazioarteko Jaialdia

**Non?** Bilborocken eta beste toki batzuetan.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Eduki digitalen jaialdia.

Eduki digitalak euskarri digital batean

ikus daitezkeenak dira.

Adibidez, web-orri batean

edo sare sozialetan.

Jaialdi honetan proiekzioak ikus daitezke,

eta hitzaldiak eta egungo

ikus-entzunezkoen aurrerapenak

erakusten dituzten ekitaldiak daude.

Gainera, jaialdi honetan

teknologia berriena dago.

**Web-orria:**

https://www.seriesland.eus

## Zinebi

## Bilboko 67. Dokumental

## eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Golem Alhóndiga Zineman, Guggenheim Museoan, BBK Salan, Arriaga Antzokian.

**Noiz?** Azaroan.

### Zer eskaintzen du?

- Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa Sail Ofiziala: dokumentalei, animazioari eta fikzioari eskainia.
- ZIFF- ZINEBI First Film Sail Ofiziala, lehen film luzea sortzen duten egileei eskainia.

Jaialdi honek hasten diren egileei laguntzen die.

### Web-orria:

https://zinebi.eus/

**Homeless Film Festival**

**10. edizioa**

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Bizkaia Aretoan.

**Noiz?** Azaroaren 12an eta 13an.

## Zer eskaintzen du?

Etxerik gabeko pertsonei
eta pertsona horien gizarteratzean
laguntzeko zinemaldia.

Zinemaldi honetan ematen diren film laburrak
etxerik gabeko pertsonekin grabatu dira
bizi dituzten errealitateak ezagutarazteko.

Zinemaldi hau Manchesterren jaio zen 2011n,
eta Bizitegi elkarteari esker egiten da Bilbon.

**Web-orria:**
https://homelessfestival.org/

**Homeless Film Festival:**
ingelesezko hitz hauek esan nahi dute:
Etxerik gabeko pertsonentzako zinemaldia.

**Tracking Bilbao**

**13. edizioa**

**Tracking:**

ingelesez esan nahi du: jarraitzea.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Sala BBK, Bilborock.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Kulturari eta Interneti buruzko jardunaldiak hainbat jarduerekin: tailerrak, **podcastak** eta show-ak.

**Podcasta:**

Interneten bidez entzun daitezkeen grabatutako programak.

Jardunaldi hauen helburua da Interneten erabilerarekin hezkuntza irakasgai desberdinek dituzten aukera berriak erakustea.

**Web-orria:**

https://www.trackingbilbao.com/

## BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia 2025

## Bilboko Nazioarteko Mendi Zinemaldia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** BBK Salan, Euskalduna Jauregian,
Golem Alhóndiga Zineman.

**Noiz?** Abenduan.

### Zer eskaintzen du?

Nazioarteko nobedadeak aurkezten ditu mendiko, abenturako, muturreko kiroletako eta naturako zineman.

Helburua du mendiko zinema eta naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea.

### Web-orria:

https://mendifilmfestival.com/

## Animakom Fest

## Bilboko Animaziozko

## Zinemaren Nazioarteko Jaialdia 9. edizioa

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Bilborocken.

**Noiz?** Abenduan.

**Zer eskaintzen du?**

Nazioarteko animaziozko zinemaren

lanik onenen aukeraketa.

Film laburrak 4 sailetan sailkatuta daude:

profesionalak, ikasleak, euskal film laburrak

eta bideoklip animatuak.

Baita nazioarteko zinemaldietako

lanak egoten dira,

eta bereziki, emakumeek zuzendutako

film laburrak.

**Web-orria:**

https://animakom.com/es

# 7. Musika

### Zer da musika?

Ahotsaz edo musika tresnez
soinuak sortzeko artea da.

Musika oso garrantzitsua izan daiteke
gure bizitzan,
hainbat unetan lagun dugulako
eta bizi izan ditugun uneak
gogorarazten dizkigulako.



## Bilboko Elkarte Filarmonikoa

**Filarmonikoa:**
musikazalea den pertsona.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Portuko Markesaren kalea 2.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Kalitate handiko kontzertuak
nazioarteko artista handiekin.

Jarduera hauek ere eskaintzen ditu:
artistekin topaketak, hitzaldiak
eta irakurketa-klubak.

**Web-orria:**

https://www.filarmonica.org/

## **Bilboko Koral Elkartea**

**Koral:**

abesti edo

musika-pieza bera

aldi berean

abesten duten.

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Felipe Serrate kalea 2.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

50 emanaldi baino gehiago

hainbat estilorekin eta generorekin.

Euskal talentua eta kultura bultzatzen ditu

gure lurraldean bertan eta kanpoan.

Bilboko Koral Elkarteak biltzen ditu

musika koralarekin konprometitutako

200 korista, 400 ikasle eta 800 bazkide.

**Web-orria:**

https://www.coraldebilbao.com/

## Jazzon Aretoa

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Urazurrutia kalea 5. Ibaiondon.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Jazz kontzertuak ostegunero,

ostiralero eta larunbatero.

Kontzertu horietan euskal eta nazioarteko

artista garrantzitsuek jotzen dute.

Gainera, jazz ziklo hauek antolatzen dituzte:

Impulso, Lithium, Berezia eta Swing Nights.

Baita eskaintzen dituzte ere

profesionalek emandako eskolak,

musika-inprobisazio ekitaldiak

eta Jazzon Fest.

**Web-orria:**

https://jazzonaretoa.com/

## BJC Bilbaina Jazz Club

**Non?** Urazurrutia kalea 5. Ibaiondon.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

1991 geroztik,

nazioarteko jazz-ekitaldiak Bilbon.

Jazz ziklo ospetsua du, Auditorio.

Eta maila handiko nazioarteko artistak

igarotzen dira bertatik.

**Web-orria:**

https://www.bilbainajazzclub.org

## Kafe Antzokia

**Non?** Done Bikendi kalea 2.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal kulturaren topagune

eta erreferentzia-gune nagusietako bat.

Zuzeneko musika jotzen den

Bilboko agertoki garrantzitsuenetako bat ere badu.

**Web-orria:**

https://www.kafeantzokia.eus/

## Musika ikasteko tokiak Bilbon

### OAL Bilbao Musika TEA

**Non?** Sorkunde kalea 8. Ibaiondon.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Instrumentuak jotzen eta abesten ikasteko prestakuntza.

Kontzertuak, **kalejirak,** erromeriak eta tailerrak ere eskaintzen ditu.

**Kalejira:**
jai herrikoia, musika eta dantza banden desfilearekin.

Eskola honen helburua da musika-zaletasun gehiago egon dadila lortzea.

**Web-orria:**

https://www.bilbaomusika.eus/

## Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioa

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Ibarrekolandan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bilbon musika ikasteko

zentro nagusia da.

Baita gitarrak eta bibolinak bezalako

hari-instrumentuak egiten

eta konpontzen ikasteko

prestakuntza eskaintzen duen

zentro bakarra ere.

Ekitaldi programa zabala du.

Hiriko kultura-bizitzan garrantzitsua da.

**Web-orria:**

https://conservatoriobilbao.hezkuntza.net

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Mesedeetako kaia 1. Ibaiondon.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Gazteak elkartzen diren

eta esperientziak partekatzen dituzten zentroa.

Zentro honetan hainbat jarduera egiten dira:

musika, zinema, antzerkia, dantza,

laborategiak, hitzaldiak eta aurkezpenak.

Pertsonek interesen eta jakin-minen arabera,

harremanak izan, sortu, erakutsi

eta parte hartu dezaketen lekua da.

**Web-orria:**

https://bilbaogazte.bilbao.eus/bilborock/

## Udal Musika Banda

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Ekitaldi ofizialetan,

auzoetako kontzertuetan

eta Areatzako kioskoan jotzen du.

Bilboko kultura-jardueraren

adibide nabarmena da.

Azpimarratzekoa da Euskalduna Jauregian,

Azkuna Zentroan, Arriaga Antzokian

eta J.C. Arriaga kontserbatorioan

duen kontzertuen denboraldia.

Kontzertu horien programa askotarikoa da.

Hainbat musika-genero eta -estilo jotzen dituzte.

**Web-orria:**

https://www.bilbaomusika.eus/

## Txistularien Udal Banda

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Txistua:**

Euskal Herriko 3 zuloko txirula. Instrumentu hau jotzen duten pertsonak **txistulariak** dira.

**Zer eskaintzen du?**

Musika jarduera zabala eta askotarikoa.

Jarduera nabarmenenak dira:

- Euskalduna Jauregiko kontzertu-zikloa. Areatzako kioskoko udaberriko kontzertuak.
- Aste Nagusiko txistularien alardea.

Beste ekitaldi batzuetan ere parte hartzen dute: inaugurazio ekitaldietan eta taldeekin, musikako profesionalekin eta kultura- eta gizarte-erakundeekin kolaborazioak.

**Web-orria:**

https://www.bilbaomusika.eus/

## BOS - Bilbao Orkestra Sinfonikoa

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Euskalduna Jauregian.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)

kontzertu ugarien programa

aurkezten du denboraldi guztietan.

Hainbat motatako kontzertuak

eskaintzen ditu:

orkestra handiarekin,

orkestra txikiagoarekin

kontzertu didaktikoak

eta familia osoarentzat.

**Web-orria:**

https://bilbaorkestra.eus/

## Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa

**Non?** Hurtado de Amezaga kalea 27.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Amagoia Loroño zuzendariak

zuzendutako hainbat ikuskizun

eta kontzertu.

Gainera Loroño Musikaltegia eskola dute,

haurrek, gazteek eta helduek

ikas dezaten.

**Web-orria:**

https://www.bilbaoacordeon.org/

## Musika-Música Jaialdia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Euskalduna Jauregian eta Arriaga Antzokian.

**Noiz?** Martxoaren 7tik 9ra.

### Zer eskaintzen du?

Bilboko Udalak antolatutako

musika klasikoko jaialdia.

Aurten, estatuko eta nazioarteko

ospe handiko orkestrak, taldeak

eta musikariak hartuko ditu berriz.

Musikari gazteak ere egongo dira,

musika klasikoa herritarren

sektore guztietara hurbiltzeko.

### Web-orria:

https://musika-musica.bilbao.eus/

## Damba Festival

**Non?** San Frantzisko auzoan.

**Noiz?** Martxoan.

**Zer eskaintzen du?**

Arrazakeriaren aurkako kultura-jaialdia.
Jaialdi honek **aniztasuna** ikusarazten eta elkarbizitza sustatzen ditu musikaren, antzerkiaren eta dantzaren bidez.

**Aniztasuna:** hainbat ezaugarri fisiko, sozial eta kultural dituzten pertsonak elkarrekin bizitzea.

Euskal RAP Elkarteak antolatzen du jaialdi hau, martxoaren 21ean Arrazagatiko Diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko.

**Web-orria:**

https://www.instagram.com/dambafestival/

## BAS - Bilbao ARS Sacrum

**Non?** Enkarnazioaren elizan.

**Noiz?** Apirilean.

**Zer eskaintzen du?**

Erlijiozko eszenaren

eta musikaren erakusketa.

**Web-orria:**

https://musika-musica.bilbao.eus/

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Bilbao Arenan.

**Noiz?** Ekainaren 13an eta 14an.

**Zer eskaintzen du?**

Folk eta rock musika generoetako

kalitate handiko taldeen emanaldiak.

**Web-orria:**

https://www.musiclegendsfestival.com/

## Bilbao BBK Live

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Kobetamendin.

**Noiz?** Uztailaren 10etik 12ra.

**Zer eskaintzen du?**

3 egunetan zehar,

egungo musika talde nagusien

zuzeneko kontzertu handiak.

Talde horietako batzuk dira:

Kylie Minogue, Pulp, Raye, Bad Gyal,

Michael Kiwanuka, Nathy Peluso,

Ca7riel & Paco Amoroso eta askoz gehiago.

**Web-orria:**

https://www.bilbaobbklive.com/

## Bilbao Blues Festival

**Non?** Areatzan.

**Noiz?** Uztailaren 25etik 27ra.

**Zer eskaintzen du?**

Bertako eta nazioarteko bluesaren talde onenen kontzertuak.

Gainera, programazioan daude ere hitzaldiak, eskolak, kontzertuak, haurrentzako jarduerak eta kaleko animazioa.

Jaialdi hau nahitaezko hitzordua da bluesa eta oro har musika ona maite dutenentzat.

**Web-orria:**

https://www.bilbaobluesfestival.com/

## BIME Live

## Musikaren Industriariaren Nazioarteko Topaketa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Euskalduna Jauregian.

**Noiz?** Urriaren 28tik 31ra.

### Zer eskaintzen du?

Latinoamerikako eta Europako

musikarekin lotutako

profesionalak eta artistak

elkartzeko aukera.

Topaketa honetan,

musikako artistek eta profesionalek

harremanak izateko

eta proiektu berriak sortzeko

aukera dute.

**Web-orria:**

https://www.bime.net/

## Jazzon Fest

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Jazzon Aretoan,

Urazurrutia kalea 5.

**Noiz?** Urritik abendura.

**Zer eskaintzen du?**

Askotariko jazz-programazioa,

estatuko eta nazioarteko

musikari garrantzitsuekin.

Gainera, jaialdi honek hirian

jazzerako talentua duten pertsonak

bultzatzen ditu,

eta zaleentzako topagunea da.

**Web-orria:**

https://jazzonaretoa.com/

## Festival Bilboloop

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Azkena aretoan,

Ibáñez de Bilbao kalea 28.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Bertako, estatuko eta nazioarteko

talde berri onenen kontzertuak.

Bilboko hainbat aretotan ere

doako jarduerak eskaintzen ditu.

Jaialdi honek 24. edizioa

ospatuko du aurten.

**Web-orria:**

https://www.bilboloop.com/

# 8. Ondarea eta identitatea

## Zer da kultura-ondarea?

Leku baten iraganaren parte diren

objektuen, lekuen, bizipenen

eta ezagutzen multzoa.

Eta toki horren kultura eta ohitura gisa

mantentzen dira.

Kultura-ondareari esker,

jakin dezakegu leku batean

aspaldi nola bizi izan zen

eta gure kultura hobeto uler dezakegu.

## Zer da kultura-identitatea?

Leku batekin lotuta dauden

balioak, ohiturak, ikurrak,

sinesmenak eta portaerak.



## Bilboko Udal Artxiboa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Artxiboa:**
modu ordenatuan dokumentuak eta era guztietako informazioa gordetzen den lekua.

**Non?** Ernesto Ercoreca plaza 1, 5. solairua.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Udal Artxiboak aukera ematen du administrazio-espedienteak, argazki bildumak, planoak, kartelak eta dokumentu grafikoak kontsultatzeko.

Gainera, online kontsulta daitekeen artxiboa ere badu.

### Web-orria:

Web-orrirako esteka

## Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** María Díaz de Haro kalea 11.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Artxibo honek, gordetzen, zaintzen eta publikoaren esku jartzen du Bizkaiko historiarekin lotutako dokumentazio guztia.

**Web-orria:**

https://web.bizkaia.eus/eu/web/archivo/

## Euskadiko Artxibo Historikoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** María Díaz de Haro kalea 3.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Dokumentu ofizialak

eta pertsona partikularrenak gordetzen ditu.

Dokumentu horiek erakusten dute

euskal gizartea nola bizi zen

denboran zehar.

Dokumentuak paperean

eta formatu digitalean daude.

**Web-orria:**

https://www.artxibo.euskadi.eus/hasiera/

## Artxiboaz

## Azkuna Zentroaren Artxibo Digitala

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Azkuna Zentroan.

Arriquibar plaza 4.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Artxibo honek Azkuna Zentroko kultura-programazioa

gordetzen du formatu digitalean.

Gaur egungo kultura-sorkuntza

ulertzen laguntzeko tresna da.

### Web-orria:

https://artxiboa.azkunazentroa.eus/

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** María Díaz de Haro kalea 11.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Aretoak berak eta beste erakunde batzuek

antolatutako erakusketak.

Erakusketen gaiak askotarikoak dira.

Erakusketa asko

kultura-ondarearekin lotuta daude.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aretoa da.

Erakusketak hartzeko

400 m2-ko espazioa du.

**Web-orria:**

Web-orrirako esteka

## Euskararen Etxea

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Aoitz plaza 1.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

### Zer eskaintzen du?

Euskararen interpretaziorako
munduko zentro bakarra du.

Erakusketa dibertigarri bat dago
euskara eta euskal kultura azaltzen diguten
informazioarekin, jolasekin eta ikus-entzunezkoekin.

Zentro honek datuak ematen ditu
euskararen egungo egoerari,
gure hizkuntzaren historiari
eta etorkizuneko erronkei buruz.

**Web-orria:**

https://euskararenetxea.eus/

## Dantza Plazetan

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar, abuztuan izan ezik.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal dantzen eta **erromerien** erakustaldia Bilboko kaletan eta plazetan.

**Erromeria:**
festa herrikoia, baseliza baten inguruko zelaietan leku horretako jaietan egiten den dantzekin.

Erakustaldi hau Bilboko Udalak antolatzen du Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin lankidetzan.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

## Diversitours kulturarteko ibilbideak

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar, abuztuan izan ezik.

**Zer eskaintzen du?**

San Frantzisko, Bilbo Zaharra
eta Zabala bezalako auzoetako
ibilaldi gidatuak.

Ibilaldi horietan erakusten da
migrazioen eta Bilboko
kultura desberdinetako
pertsonen arteko bizikidetzaren
gaurko eta iraganeko historia.

KOOP SF 34 erakundeak antolatzen du
hezkuntza-jarduera hau.

**E-mail:**

diversitoursbilbo@gmail.com

## Dantzak Eskoletara

**Non?** Hainbat ikastetxe publikotan.

**Noiz?** Urte osoan zehar, abuztuan izan ezik.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal dantzen ikastaroak,

Udalaren eta Bizkaiko

Dantzarien Biltzarraren arteko

lankidetzari esker.

## Loraldia Festibala

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Martxoaren 10etik 30era.

**Zer eskaintzen du?**

Euskarazko kultura eta sortzaileak

dinamizatzeko eta ezagutzera emateko

kultura-jaialdia.

Emozio asko pizten dituzten emanaldiak daude.

**Web-orria:**

https://www.loraldia.eus/

## Bilbao Basque Fest

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Apirilaren 16tik 20ra.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal kulturari, artistei

eta sortzaileei buruzko

jaialdi turistikoa.

Hiriko hainbat tokitan

6 gai hauekin lotutako jarduerak daude:

kultura, musika, kirola,

merkatua, zinema eta janaria.

**Web-orria:**

https://www.bilbao.eus/basquefest/

## Bilbainada Lehiaketa

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Izena emateko deialdia apiriletik ekainera.

**Bilbainada:**

Bizkaiko musika-genero tipikoa. Bilbori eta inguruko herriei buruz hitz egiten duten abestiak abesten dira.

**Zer eskaintzen du?**

Lehiaketak Bilboko abesti herrikoia ezagutzera eman nahi du.

Udalak sustatzen du,

Radio Nervión eta TeleBilbaorekin batera.

Sariak Aste Nagusian banatuko dira.

Bilbainaden irabazleen CDa aurkezteko gala

Arriaga Antzokian egingo da, urte bukaeran.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/

## Udaberriko Bertso Saioak

**Non?** Karmelo plaza, Santutxun.

**Noiz?** Maiatzean.

**Zer eskaintzen du?**

Bertsolaritzako saioen programa.

Aurten 41. edizioa beteko du.

> **Bertsolaria:**
> euskaraz bat-batean
> sortutako poemak
> abesten dituen pertsona.

Bilboko Udalak antolatzen du,

Santutxuko Bertso Eskolarekin elkarlanean.

Maiatzeko lau larunbatetan zehar,

bertsolari ospetsuenak arituko dira.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

## Kultura-Aniztasunaren Munduko Eguna

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Azkuna Zentroan.

**Noiz?** Maiatzaren 21ean.

**UNESCO:**
Hezkuntza, Zientzia
eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea.

### Zer eskaintzen du?

Maiatzaren 21a Elkarrizketarako eta Garapenerako
Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna da.
UN etxea – **UNESCO** sustatzeko Euskal Herriko Elkarteak
antolatzen du egun horretako ospakizuna.

Ospakizunak nabarmendu nahi du,
munduko kulturen arteko elkarrizketak eta bizikidetzak
bakea lortzeko duen garrantzia.
Ekintza honek sustatzen du
pertsona guztiek bizitza kultural betean
parte hartzeko eta gozatzeko duten eskubidea.

**Web-orria:**

https://unetxea.org/cultura/

## Bilbao Izan

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Maiatzean, uztailean,
irailean eta abenduan.

**Zer eskaintzen du?**

Bilboko ondare historikoa
ezagutzera emateko programa.
Maiatzetik ekainera oinezko bisita gidatuak
eskaintzen ditu hiriko zenbait lekutatik.

Sare sozialetan ezagutzera ematen ditu ere
Bilbon bizitako pasadizoak, pertsonak,
gertaerak eta une historikoak,
Txio Ta Txio izeneko bideoen bitartez.

Argazkineta proiektuak auzokideen
**testigantzak** jasotzen ditu
eta argazki eta bideo bihurtzen ditu
Bilboko auzoetako historia hobeto ezagutarazteko.

> **Testigantza:**
> gertaera baten testigu izan den edo aipatzen den lekuan bizi izan den pertsona batek egiten duen adierazpena.

**Web-orria:**

https://bilbaokultura.eus/bilbao-izan/

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Denon ondarea ezagutarazteko
eta babesteko eta kulturarteko
elkarrizketa bultzatzeko jardunaldiak.

Bisita gidatuak, ibilbideak,
erakusketak eta hitzaldiak,
kontzertuak eta beste kultur ekitaldiak
antolatzen dira.

**Web-orria:**

https://ondareabizkaia.eus/

# 9. Aisi kulturala

## Zer da aisialdi kulturala?

Kulturarekin eta artearekin lotuta

egiten ditugun jarduerak

libre dugun denboran.



## Erregeen Kabalgata

**Non?** Kale Nagusian eta Buenos Aires kalean, udaletxeraino.

**Noiz?** Urtarrilaren 5a.

**Zer eskaintzen du?**

Kabalgata Kale Nagusian
eta Buenos Aires kalean
zehar ibiliko da, udaletxeraino.

Erregeek publikoa
balkoitik agurtuko dute.
Urtarrilaren 5eko goizean,
Errege Magoei harrera
egingo zaie udaletxean.

## Aratusteak

**Non?** Zazpi Kaleetan

eta Zabalguneko kaleetan.

**Noiz?** Martxoaren 1etik 5era.

**Zer eskaintzen du?**

Desfileak eta **txarangak**

Jai Batzordeak aukeratutako

Farolínekin eta Zarambolasekin batera.

> **Txaranga:**
> festa ekitaldiak
> animatzeko kalean
> jotzen duen
> musika banda.

Egun horietan hainbat jarduera egongo dira:

kontzertuak, antzerkia,

haurrentzako tailerrak,

mozorro-lehiaketa eta dantzak.

## Afrika Eguna

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?




**Non?** Itsasmuseumen

eta Euskalduna zelaietan.

**Noiz?** Maiatzaren 18tik 25era.

### Zer eskaintzen du?

Maiatzaren 25ean Afrikako Eguna da.

Afrikari laguntza ematen dioten Bilboko elkarteek

“Afrika Eguna, Bilboko Harrotasuna”

jaialdia antolatzen dute.

Jaialdiak Afrikaren errealitatea

ezagutzera ematen du, hainbat jardueren bidez.

Jaialdia maiatzaren 18an hasiko da 2025eko Afrika Eguna

txapelketaren ospakizunarekin, Berriotxoa ikastetxean.

Gainerako ekitaldiak 23an, 24an eta 25ean

izango dira Itsasmuseumen eta Euskalduna zelaietan.

### Web-orria:

https://afrikaeguna.com/

## Gau Zuria

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Ekainaren 13an eta 14an.

**Zer eskaintzen du?**

Bi gauez, Udalak hiria

modu berezian argiztatzen du,

Bilboko Hiribilduaren urteurrena

ospatzeko.

## Bilboko Aste Nagusia

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Abuztuaren 16tik 24ra.

### Zer eskaintzen du?

Era askotako jarduerez betetako 9 egun, doakoak eta gehienak aire librean.

Hiri osoan zehar gustu guztietarako 100 musika jarduera eskaintzen dira.

Jarduera hauek ere daude:

su artifizialak, kale-antzerkia, lehiaketa gastronomikoak, pilota, arrauna eta **herri-kirolak.**

> **Herri kirolak:**
>
> Euskal kirol tradizionalak.

## Munduko jendeak jaialdia

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Urrian.

**Zer eskaintzen du?**

Beste kultura batzuk ezagutzeko
eta euskal gizartearen
eta Bilbon bizi diren
beste herrialde batzuetako pertsonen artean
harremanak sortarazteko proiektua.

Antolatzen diren jarduerak
gai hauekin lotuta daude:
musika, dantza, **gastronomia,**
hitzaldiak eta mahai-inguruak.
Jarduera horiek balio dute
pertsonen arteko harremanak,
errespetua, elkarrizketa
eta adiskidetasuna bultzatzeko.

> **Gastronomia:**
> janaria prestatzen jakiteko
> eta jaki plater on bat
> aurkezteko artea.

**Web-orria:**

https://www.facebook.com/federaciongentesdelmundo/

## Fair Saturday Jaialdia

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Azaroko azken larunbatean.

**Zer eskaintzen du?**

Artearen eta kulturaren bidez

mundua aldatzea helburu duen eguna da.

Bilbon, 2015ean jaio zen

nazioarteko kultura mugimendua da

gizartean eragin onuragarria duen

kultura sortzeko.

Jaialdian parte hartzen duten

erakundeek eta artistek

gizarte-proiektu bati emango diote

kultura-jarduerarekin irabazitakoaren zati bat.

**Web-orria:**

https://fairsaturday.org/

## Ongietorria Olentzerori

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Abenduaren 23an eta 24an.

**Zer eskaintzen du?**

Olentzero abenduaren 23an

iritsiko da Bilbora, opariz beteta.

Arratsaldeko 6etan

agertuko da Moyua plazan,

eta kalez kale ibiliko da

Arriaga Antzokiraino.

Bertan pasako du gaua.

Abenduaren 24an,

goizeko 11etatik eguerdiko 2etara,

Olentzerok eta Mari Domingik

Arriaga Antzokian

haurrei harrera egingo diete.

Arratsaldean,

Olentzero eta Mari Domingi

auzoetara joango dira.

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Blas de Otero kalea 54.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

## Zer eskaintzen du?

**Murgiltze-erakusketak** munduko koadro ospetsuenez gozatzeko, koloreak ukitzeko eta soinuak entzuteko.

Artea bizitzeko modu berria da, teknologiari esker.

**Murgiltze-erakusketa:** erakusketa bisitatzen duen pertsonari aurrean duen koadroaren parte sentitzea ahalbidetzen dion teknika, eta ez ikusle bat bakarrik izatea.

**Web-orria:**

https://www.nextmuseum.net/es/lugares-de-exposicion/proximo-museo-bilbao/

# 10. Hurbileko kultura

## Zer da hurbileko kultura?

Hurbileko kultura hiriko barruti

eta auzo guztietan egiten diren

kultura jarduerek osatzen dute.

Hurbileko kulturari esker

bertan bizi diren herritarrek

kulturaz goza dezakete

eta sortzeko gaitasunak

garatu ditzakete.



## Bilbo, barruti eszenikoa

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bilboko Udalak jarduerak antolatzen ditu antzerkia, dantza, musika eta zirkoa hiriko **udaltegietara** hurbiltzeko.

Bilbo Barruti Eszenikoak eskaintzen dituen jarduerak dira:

- Bilboko Zirkuitua.
- Errekaldeko Umorezko Antzerki Erakustaldia.
- Deustualdeko Klown Jaialdia.
- 21. Magia Topaketak.
- Bilboko Dantzaguneak Kalera.
- Clown Zorrotza.
- Ibaiondo Dantzan.
- Eszena Kalera.
- Zirkualde.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

## Bilboko Zirkuitua

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Barrutietako udaltegietan.

**Noiz?** Eguenetan, urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

### Zer eskaintzen du?

Bilboko eta gainerako Bizkaiko konpainia afizionatu eta erdiprofesionalen antzerki-emanaldiak.

## Muestra de Teatro de Humor de Rekalde

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Errekaldeko udaltegian.

**Noiz?** Barikuetan, martxoaren 7tik 28ra.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Deustuko udaltegian,

gazteentzat eta helduentzat.

San Ignazio-Ibarrekolandako udaltegian

publiko guztientzat.

**Noiz?** Otsailaren 7tik 26ra.

**Zer eskaintzen du?**

Clown saioak.

## 21. Magia Topaketak

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Otxarkoagako udaltegian.

Txurdinagako Garai Lorategia plazan.

**Noiz?** Maiatzean.

### Zer eskaintzen du?

Bertako, estatuko eta nazioarteko

20 magoren magia-ikuskizunak.

## Bilboko Dantzaguneak Kalera

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?

**Non?** Oraindik ez dakigu tokia.

**Noiz?** Ekainaren 7an eta 8an.

### Zer eskaintzen du?

Bilboko ballet eta dantza

eskoletako eta akademietako

ikasleen emanaldiak.

## Klown Zorrotza

**Non?** Zorrotzan.

**Noiz?** Maiatzaren 9tik 11ra.

### Zer eskaintzen du?

Clown emanaldiak.

## Ibaiondo Dantzan

**Non?** Miribilla auzoan.

**Noiz?** Ekainaren 20an eta 21ean.

**Zer eskaintzen du?**

Dantza garaikideko emanaldiak kaleetan.

## Eszena Kalera

**Non?** Bilboko barruti guztietan.

**Noiz?** Irailean.

**Zer eskaintzen du?**

Antzerkia eta kaleko arteak.

Zirku garaikideko, clown, magia,

dantza, antzerkia

eta parte-hartzeko ekintzak.

**Non?** Errekalden.

**Noiz?** Irailaren 18tik 21era.

**Zer eskaintzen du?**

Zirkuarekin lotutako arteen jaialdia.

15etik 17ra egingo dira

Dantza Bertikalaren 3. Topaketa

eta CircoRed Estatuko Kongresua.

## Bilbao, musika barrutia

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Bilboko Udalak musika eramango du

hiriko txoko guztietara,

bertako erakundeekin lankidetzan.

Bilbo Musika Barrutiak eskaintzen dituen

jarduerak dira:

- Betiko Musika Otxarkoagan.
- Bilbao Distrito Jazz.
- Musika-zikloak.
- MusikAuzo.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

## Betiko Musika Otxarkoagan

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Otxarkoagako udaltegian.

**Noiz?** Urtarrilaren 25etik apirilaren 5era.

### Zer eskaintzen du?

Betiko musika.

## Bilbao Distrito Jazz

**Non?** Udaltegietan

eta beste toki batzuetan.

**Noiz?** Urtarrilaren 31tik martxoaren 7ra.

### Zer eskaintzen du?

Jazz kontzertuen zikloa,

Bilbaína Jazz Clubarekin lankidetzan.

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**

**Non?** Jarduera bakoitzean tokia adierazten da.

**Noiz?** Jarduera bakoitzean data adierazten da.

**Zer eskaintzen du?**

**Musika dibertigarria da,**

barikuetan, maiatzaren 2tik 30era.

Bertendonako Institutuan.

**Mila Musika Haria,**

azaroan eta abenduan.

Gitarra eta hari-instrumentuen zikloa.

Bertendonako Institutuan.

**11. Bazter Fest,**

azaroan.

Hip hop kulturaren jaialdia, femeninoan.

BilboRocken.

**Non?** Barruti guztietan.

**Noiz?** Maiatzean eta ekainean.

**Zer eskaintzen du?**

Hainbat musika-estiloko kontzertuak.

## Bilbao, barruti bisuala

**Zer eskaintzen du?**

Udalak pintura eta argazkigintza bezalako arte bisualak hiriko barruti guztietara eramaten ditu.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

### ExpoDistrito

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Barrutietako udaltegietan.

**Noiz?** Urte osoan zehar,

uztailean eta abuztuan izan ezik.

**Zer eskaintzen du?**

Euskal artisten pinturen

eta argazkien erakusketak.

3 hilean behin argitaratzen da

erakusketen katalogoa.

**Zer eskaintzen du?**

Beste kultura- eta aisialdi-jarduera batzuk.

## Mintzapraktika

**Non?** Auzo guztietan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Euskara aisialdi-jardueren bidez praktikatzeko programa.

Euskara dakitenentzat eta ikasten ari direnentzat.

4-6 pertsonako talde txikiak antolatzen dira auzoka edo zaletasunen arabera.

Astean gutxienez ordubetez biltzen dira.

**Web-orria:**

https://praktikatu.eus/blog/bilbo/nor-gara/

**Non?** Zazpi Kaleetan.

**Noiz?** Urte osoan zehar.

**Zer eskaintzen du?**

Euskara eta euskal kultura

ezagutzeko programa.

Baita euskal sortzaileentzako

gunea du ere.

Programa honek eskaintzen ditu:

antzerkia, hitzaldiak, ikuskizunak,

dantza eta musika saioak.

**Web-orria:**

http://www.bira.eus/

## Lautan hiru

**Non?** Zazpi Kaleetan.

**Noiz?** Urtarrilean eta otsailean.

**Zer eskaintzen du?**

Antzerki ikuskizunak euskaraz

Zazpi Kaleetako toki hauetan:

Bira Kulturgunea, Café Bar Bilbao,

7Katu gaztetxea, Kalderapeko

eta Euskaltzaindiaren egoitza.

**Web-orria:**

https://www.euskaltzaindia.eus/

**Non?** Campo Volantín pasealekua 1bis.

**Noiz?** Martxotik maiatzera.

**Zer eskaintzen du?**

Euskara gehiago erabiltzea bultzatzeko

eta euskararen aldeko jarrera hobetzeko programa.

10 eta 16 urte bitarteko gazteentzako.

3 atal ditu:

- **Harrapazank Eszena:**

  artista gazteen talentu-lehiaketa.
- **Klikazank:**

  bideo-jokoen lehiaketa.
- **Harrapazank irteerak:**

  eguneko irteerak.

**Web-orria:**

https://harrapazank.eus/

## Ikusi eta ikasi

**Non?** Barruti guztietan.

**Noiz?** Otsailetik maiatzera.

**Zer eskaintzen du?**

Aisialdiko, kulturako eta heziketako programa.

2 eta 11 urte bitarteko haurrentzat.

Familien eta lagunen artean egiteko tailerrak.

**Web-orria:**

https://www.ikusietaikasi.eus/

## Bidaiarien Txokoa

### Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Begoñako eta Santutxuko udaltegietan.

**Noiz?** Martxoaren 7tik apirilaren 5era.

### Zer eskaintzen du?

Hitzaldiak, proiekzioak, erakusketak, kontzertuak eta tailerrak.

Bidaiak, abenturak eta beste kultura batzuk auzoetara hurbiltzen dituen programa.

### Web-orria:

https://kulturabarrutik.eus/

## Santutxu Kolorea

**Non?** Santutxun.

**Noiz?** Ekainaren 6tik 8ra.

**Zer eskaintzen du?**

**Folklorea** sustatzeko programa.

Udalak eta Gaztedi Dantzari Taldeak antolatzen dute.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

**Folklorea:**
belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren leku bateko kultura eta tradizioak.

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Irailetik ekainera.

**Zer eskaintzen du?**

Aisialdian euskaraz aritzeko jarduerak:

bisita gidatuak, hitzaldiak, tailerrak,

**dastatzeak,** txangoak.

16 urtetik gorakoentzako.

**Dastatzea:**

jakiak edo edariak

probatzea.

**Web-orria:**

http://darabilbo.blogspot.com/

**Non?** Basurtun.

**Noiz?** Irailaren 25etik 27ra.

**Zer eskaintzen du?**

Beti Jai Alai Dantzari Taldeak

antolatutako folklore-programa.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

## Zer irisgarritasun-neurri ditu?



**Non?** Barrutietako udaltegietan.

**Noiz?** Urritik maiatzera.

## Zer eskaintzen du?

**Artisautzako** eta marrazkia eta pintura

bezalako arte plastikoen

eta bisualen tailerrak.

Euskaraz eta gaztelaniaz.

**Artisautza:**
Objektuak
makinarik erabili gabe
eskuz sortzeko
edo egiteko artea.

## Berbagunea

**Non?** Hainbat tokitan.

**Noiz?** Azaroan.

**Zer eskaintzen du?**

Egun oso batean zehar,

euskara-maila desberdina duten

pertsonak biltzen dira euskaraz

gai ezberdinei buruz hitz egiteko.

**Web-orria:**

http://berbagunea.eus/

**Zer irisgarritasun-neurri ditu?**



**Non?** Barruti guztietan.

**Noiz?** Abenduan.

**Zer eskaintzen du?**

**Gabonetako kultura-eskaintza.**

Antzerkia, zirkua, clown, magia,

ipuin-kontalariak, kontzertuak,

erakusketak, **kalejirak,**

erromeriak eta dantzak.

**Kalejira:**

jai herrikoia, musika

eta dantza

banden desfilearekin.

**Gabonetako abesbatza-kontzertuen zikloa.**

Bilboko 30 abesbatzen

abestien erakusketa.

Ziklo hau barrutietako parrokiatan

egiten da, azaroan eta abenduan.

**Web-orria:**

https://kulturabarrutik.eus/

# Amaitu baino lehen...

## Nola eskatu hurrengo urteko programazioak?

Bilboko Udalak ematen dizu Bilbao Kulturaren datozen urteetako programazioak eta hileko agenda kulturala posta elektronikoz jasotzeko aukera.

Bidaliko dizugun postan aurkituko duzu Bilbon antolatzen diren aisialdi- eta kultura-jarduerari buruzko informazio eguneratuagoa eta zabalagoa.

Bidali zure datu pertsonalak posta elektronikoz helbide honetara: agendakulturala@bilbao.eus

Baita zure datuak bete ditzakezu ere, web-orrian horretarako sortutako tokian: https://bilbaokultura.eus

## Eskerrak

Bilboko Udalak eskerrak eman nahi dizkie

erakunde publiko eta pribatu

eta herritarren elkarte guztiei

programazio hau posible egiten baitute

haien lanarekin, laguntza ekonomikoekin,

eta kolaborazioekin.

bilbaokultura.eus

**KULTURA JASANGARRIA**
CULTURA SOSTENIBLE

Bilbao